

Larraun-Lekunberriko Ayestaran Hotelean, 1986eko urriaren 25ean, egun t'erdiko Gogoeten ondoren egin du eguerdi aurrean bere batzar berezia Euskaltzaindiak. L. Villasante euskaltzainburua, P. Altuna, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzain osoak; J.L. Lizundia, idazkari-ordea eta M. Zalbide, Hiztegigintza batzordeko idazkaria, bildu dira.

Aurreko batzar-agiria onartu da.

J. M. Barandiaran euskaltzainak ohorezko doktoradutza jaso du Deustuko Unibertsitatearengandik eta zorionak ematea erabaki da.

### **Ehunurteburuko omenaldiak**

Bezperan, urriak 24, arratsaldeko 6etan egin zuen Euskaltzaindiak hileroko bere bilera, Intzako Damaso aitari hala nola Oieregiko B. eta J.A. Donostiari jaiot-mendeurreneko omenaldia eskainiz. Etorri ziren, L. Villasante, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak; J. Apezetxea, J.A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, P. Diez de Ulzurrun, J. Intxausti, F. Ixurko, J.L. Lizundia, L.M. Mujika, M.J. Urmeneta, J. Yurre, M. Zalbide eta J.J. Zearreta, urgazleak. Batzarre irekia izan zen.

Bertan zeuden, Araizko alkatea Martin Tolosa Balerdi, eta Antonio Urmenea eta Ajarnaute, idazkaria, hala nola aita F. Mujika kaputxinoen Probintzialaren izenean.

Batzarreetara ezin etorria adierazi dute, J. Haritschelhar, E. Knörr eta P. Salaburu euskaltzainek. Era berean, Riezuko aita Jorge euskaltzain ohorezkoak.

### **Intzako aita Damaso**

J.M. Satrustegi mintzatu zen, azken irailaren 21ean hil berri dugun aita Damaso euskaltzainari buruz. Giza mailan apala eta soseguzko patxada izan zirela bere ezaugarriak, esan du. Belar onen erremedioak erabili ohi zituen bere

osasun mendrearen euskarri eta beste batzuren minen sendagai. Elizgizon osoa, Euskal Nafarroako pulpitu gehienetako hizlari izan ondoren, Chileko misiora bota zuten gerra denboran nagusiek eta han jarraitu zuen bere lana. Euskararen arloan, esaera zaharrak bildu zituen herriz-herri zebilen denboran eta aditzaren azterketa egin zuen. Bi aldizkari euskaldunen sorketa eta zuzendaritza aipa genitzake ekintza garrantzitsuenetan. "Euskararen Adiskideak" izeneko elkargoa asmatu zuen euskal giroa Nafarroan indartzeko. 1920an jaso zuen euskaltzain izendapena eta 1921eko urtarrilaren 27an irakurri zuen bere sarrera hitzaldia. Aita Olabide arabarrak eman zion erantzuna. Ehun urte hauetako gertakizunen lekuko bizia genuen Nafarroan aita Damaso eta euskararen batasunari buruz azken aldiak izan zituen kezkek aipatuz, amaitu zuen txostena idazkariak.

### **Oieregiko aita Buenabentura**

F. Ondarra euskaltzain nafarrak eman zuen aita Oieregiren biziaren eta lanen berri zehatza. Igarle eta aitzindari nafarra deitu zuen: euskaltzalea, alaia, on hutsa, arimen alde langile nekaezina, Elizarekiko atxikimen haundikoa izan zela, aditzera eman zuen txostengileak. Aita Intzaren eragile eta sustatzaile izan zen elkarrekin sortutako *Iruigarren Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia* aldizkarien sorrera nahiz geroko lanetan. Hirurehun bat idazki argitaratu zituela berorietan, esan du txostengileak. Beste hogeita lau argitaragabeak ba omen daude Iruñean Kaputxinoen artxibu probintzian. Euskararen batasunaz kezkatu agertzen da beti eta irakurgaiak errazteko batasunera eramaten ahalegindu zen, batez ere gipuzkera eta bizkaieraren arteko desberdintasunak bideratu nahiz. Erdararik euskararako itzulpenez ere arduratu zen hala nola erlijio eta gizarteko hiztegia bateratzeaz.

### **Donostiako aita Jose Antonio**

Bukatzeko, J.A. Aranak egin zuen aita Donostia, hirugarren omenduaren, aipamena. Musikalari ospetsuaren biziaren eta lanaren ikerketa ugari egin izan den arren, inon agertzen ez den bere biziko atal interesgarria aztertu zuen txostengileak: aita Donostiaren atzerriko egutegia, bidaiak eta lana. Omenduaren kasuan hutsune hau bete zitekeen eta Azkue Bibliotekako zuzendariordeak ongi bete du, hark bere egunerokoan utzi ohi zituen oharrez baliatuta. Horrela badakigu Dantxariatik atera zenetik itzuli arte euskaltzain urgazle gazteak Iparraldean eraman zuen biziaren berri.

### **Eskuarteko gaiak**

"Administrazio eta Lege-arloko Itzultzaile Eskola" sortu, antolatu eta arautzeaz legeak eskatzen duen aholkularia izendatzeko eskaria jaso da, eta J.L. Lizundia izendatu da.

Felipe Arresebeitia olerki sariketarako, hala nola Toribio Alzaga antzerkigintzarako epaimahaiaren izendapena eskatu du Bizkaiko Aurrezti Kutxak. Olerkigintzarako, A. Irigoyen, J.M. Lekuona eta L.M. Mujika izendatu dira. Antzerkien sariketarako, Manu Ercilla, I. Beobide eta Daniel Landart.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak dakartzan liburua argitaratu du Eusko Jaurlaritzak eta ale bana eman zaie batzartuei. Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak parte hartu du lan honetan eta J.L. Lizundia zen zuzenean partaide.

HABE-ko kontseiluan ordezkari dugun J. San Martin Sailburuak aditzera eman duenez, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak 26 euskal irakaslerentzat diru laguntza eta lekua eskaintzen dizkio HABE-ri. Euskaltzaindiak bere egunean esana du euskararen ekintzetan Erakunde Amankomunatuaren bidez eta elkarren loturarekin behar litzatekeela lan egin. Hori dela-eta zoin izan behar lukeen bere erantzuna, galdetu du gure ordezkariak. Ezezkoa, esan zaio, lehengo erabakiaren ildo beretik.

### **Hizkuntzaren berrikuntzaz gogoetak**

Egun hauetan, bestalde, eta Lekunberrin bertan, 1981ean Hondarribian hasitako ekintzari jarraituz, hizkuntzaren berrikuntzaz gogoeta batzu izan ditu Euskaltzaindiak. Atzo, urriak 24, goizeko 9 terdietan hasitako lana, gaur batzarre berezi honen aurretik burutu da.

Bertan egon dira, L. Villasante, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. M. Atxaga, R. Badiola, J. Intxausti, J.L. Lizundia, L. M. Mujika, I. Sarasola, M. Zalbide eta J.J. Zearreta, urgazleak. J.M. Larrarte, Legebiltzarreko itzultzailea; I. Albisu eta E. Gorospe, Jaurlaritzako Boletinarene itzultzaileak, E. Oregi eta J. L. Berasategi, I.V.A.P./H.A.E.E.-ko zerbitziburua eta arduraduna; L. Otaegi, E.I.T.B.-ko euskara arduraduna; A. Agirreazaldegi eta A. Sagarna, UZEI-ko partaideak. Hasieran M. Karmen Garmendia, Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-rako idazkaria ere egon zen.

L. Villasantek gogoeta hauen asmoa eta helburua aipatu zituen, eta M.K. Garmendiak gaur dugun hizkuntza berrikuntza honen premia agertu zuen. L. Mitxelena, I. Sarasola eta M. Zalbidek eman zituzten geroko elkarrizketan abiapuntu izan ziren txostenak. Esandakoen edukina batzorde-idazkariaren agirian emango da zehatzago, baina han jasotako pare bat gauza eman nahi da hemen.

Gogoeta hauek jarraipen bat eskatzen dutela ikusi zen eta P. Altuna, M. Zalbide eta I. Sarasolak osaturiko batzordeñoa izendatu zen, asmoa aurrera eramateko zein bide eta jokamolde erabil daitezkeen aztertu eta zirriborroa beste batzarre batera ekar dezaten. Hizkuntzaren hitz altxorra berritzeko atzerriko erakunde ofizial nahiz bestelakoek egindakoa ere ikus daiteke.

Bestalde, 1959an Bilboko kongresoaren ondorioz zabaldutako Euskaltzaindiaren agiria hitzei buruz kontutan harturik eta haren osagarri, gaurko gehiegikeria eta zabarkeria hizkuntza arloan ikusita, lehen-bait-lehen adierazpen berri bat egin beharra dagoela.

Bereziki deituta erakunde eta elkargo desberdinetatik etorritakoei eskerrak emanez itxi zituen gogoetak euskaltzainburuak.

*Fr. Luis Villasante,  
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,  
Idazkaria*